

## Barrikaden azpian dagoena

**SUTAN** da Frantzia, bukaera ez dago argi oraindik, baina altxatu dira herritarrak. Urteak dira ez dela halako erreboltarik bizi. Gizarteak ez du erretreta adina bi urtez atzeratzea nahi, baina Nicolas Sarkozyren gobernuak eta finantza kapitalismoak bai. Horra lehia: gizarte ereduaren norabidea dago jokoan. Historiak erakusten du produktibitateak aurrera egiten duen neurrian, pertsonak gero eta lan ordu gutxiago egiten duela. Hori da galdu ezin den ikuspegi historikoa.

Eta historiari so, duela hamarkada gutxi batzuk oraindik ez zen pentsio publikoen sistema orokorrik, ezta opor ordaindurik (Frantzia, 1930eko hamarkadan irabazi ziren horiek). Munduko populazioaren gehiengoak oraindik ez du halako pribilegiarik. Baina azpigaratu deitzen ditugun herrialde horietako aurreratuenek, historiaren norabide hori borrokatzen dute oraindik. Evo Moralesen Bolivia txiroan, 65 urtetik 58ra jaitsi da erretretaren adina. Europa aurreratu eta aberatsean ez, Europa zahar eta zaharkituak atzera egiten du. Aldatuko ote du historiaren norabidea Sarkozy?

Berdintasunaren eta aberastasunaren banaketan, horretan oinarritu da eskubide sozialen borroka ubidea. Erreforma hauek, oster, banaketa baino kapitalizazioa indartzen dute. Gehien gordetzen duenak pentsio hobea izateak izan dezake logika bat, baldin eta oinarritzko duin orokor bat segurtatuz, eta lan urte gehiago egitera behartzen ez bada. Erreforma hauek finantza merkatuak gizentzeko erabilitako pentsio funts pribatuen bidea ere indartzen dute eta horrek azken bizpahiru urteetan zer ekarri duen ere aski ezaguna da.

Lan gehiago, diru gutxiago, hori da eredu honek gehiengoarentzat eskaintzen duena. Pentsionistek oro



LANDER FDZ. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

har egun baino diru gutxiago poltsikoratuko dute. Batetik, herritarrek, ahal badute, ez dutelako 65 edo 67 urtera arteko lanik egin gura eta, beraz, aurrez erretiratuz gutxiago irabaziko dutelako. Bestetik, sektore askotan, enpresariei eman zaizkien tresna zahar-berrituekin, langile asko erretiro adina baino askoz lehenago kanporatuko dituztelako.

Itxura guztien arabera, Frantziako Legebiltzarrak asteon emango dio amaiera erretiretan erreforma legeari, Sarkok dioen moduan, gutxiengoak ezin dituelako beste guztiak blokeatu: "Frantzia ezin da izan hori egiten duen herrialde bakarra". Baina nork esan du herritarrak bat datozenik pentsioen erreformarekin?

**LEGITIMITATE** demokratikoen lehiak barrikadaren lehen lerroa egin du jauzi: legebiltzarreko legitimitatea hala legitimitate soziala? "Ebatsi dadila erreferendumez", diote gero eta gehiagok.

Frantziako matxinada bada legitimitate borrokaren ispilu, baina iritzi publikoaren miaketa soziologikoa ere gardena da oraingoan. Ez bat eta ez bi, azken asteetan Frantzia egin diren inkesta mordoxkak gardenki agertzen du frantziarren %70-75ak ez duela erretreta atzeratzerik nahi eta, oro har, ongi ikusten dituela mobilizazioak.

Azken finean, egungo legitimitate demokratikoa gero eta gehiago

iruzurrean oinarritzen da. Hara hiru adibide. Bat, hauteskundeetako iruzurra: agindu eta ez bete, ez du azalpen handiegirik behar, herritarrak ondo baino hobeto ulertzen du. Bi, iruzur ekonomikoa: "Lasai, aurrerantzean kontrolatuko dugu hondamendia ekarri digun finantza mundua". Bistan da ezetz. Hiru, iruzur fiskala edo, bestela esanda, gizarteari lapurreta egiteko aberatsenei sistemak zabalduetako atea.

Non da Sarkozyren legitimitatea erreforma honetan, hauteskunde garaian berak erretreta ez zuela atzeratuko agindu zuenean eta herritarrek agindu horrekin hautatu bazuten? Non Zapaterorena, 2008ko hauteskunde kanpaina lan erreforma atzerakoirik egingo ez zuela agindu zuenean? You Tube lekuko.

**IPARREKO** matxinoetatik bada zer ikasi. Bai eskubide sozialen defentsaz, bai jarduera batasunaz. Ez da gaitza irudikatzea Hegoaldean nekez lortuko dela antzerakorik une zehatzetan oinarritzko sindikal batasuna bideratu ezean. LAB eta ELB ere protestaren bultzagile dira Ipar Euskal Herrian. Lan erreforma aise baino aiseago atera du PSOEren gobernuak, eta pentsioena bide beretik joango da UGT eta CCOO estatu mailan jarrera askoz tinkoago hartu ezean. Baina ipar haizearen eraginez bestelako jarrerarik balego, ELAK eta LABek ere, euskal gehiengo sindikalak, badute zer hausnartu. Espainiako greba orokor batean, euskal gizarteak badu bere burua agertzerik, une honetan bakoitza bere aldetik joanda baino gehiago seguruenik. Besteak beste horrexegatik, hemen gehiengo sindikal indartsua dagoelako. Espainiako pentsioen erreforma, horra hurrengo geltokia, hurrengo aukera.